

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3775

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 2koa, Industria eta Energiako sailburuordearena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan agregakinen lurrazpiko ustiategiak ikertu eta garatzeko eta meategiak berritzeko proiektu eta jardunen finantziatorako laguntza publikoen 2010eko ekitaldirako jendau-reko deialdia egiten da.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo-ko sailburuaren 2010eko uztailaren 1eko Aginduari jarraiki, agregakinen lurrazpiko ustiategiak ikertu eta garatzeko eta meategiak berritzeko proiektu eta jardunen finantziatorako laguntzak arautzen dira eta horien oinarri arautzaileak onartzen dira.

Agindu horren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bidezko da bertan finkatutako laguntzetarako deialdia egitea 2010eko ekitaldirako, eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta adierazitako Aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmenaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Xedea.

1.— Ebazpen honen helburua honako hau da: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo-ko sailburuaren agregakinen lurrazpiko ustiategiak ikertu eta garatzeko eta meategiak berritzeko proiektu eta jardunen finantziatorako laguntzak arautzeko eta horiek arautzeko oinarriak onartzeko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2010eko ekitaldirako deialdia egitea.

2.— Horretarako, 2010erako zortziehun eta hogeita hamaika mila (831.000) euroren balioa duen ordainketa-kreditu bat dago, abenduaren 23ko 2/2009 Legean 2010eko ekitaldirako onartutako Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren 07.7311.33.75200.001 aurrekontu-aplikazioaren kontura.

3.— Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak burutu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, eta betiere laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

3775

RESOLUCIÓN de 2 de julio de 2010, del Viceconsejero de Industria y Energía, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas económicas para la financiación de proyectos y actuaciones para la investigación y desarrollo de las explotaciones subterráneas de áridos e innovación minera en la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

En virtud de la Orden de 1 de julio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, se regulan las ayudas para la financiación de proyectos y actuaciones para la investigación y desarrollo de las explotaciones subterráneas de áridos e innovación minera y se aprueban sus bases reguladoras.

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2010, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el mencionado artículo 7 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

Primero.— Objeto.

1.— Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2010 de las ayudas previstas en la Orden del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas para la financiación de proyectos y actuaciones para la investigación y desarrollo de las explotaciones subterráneas de áridos e innovación minera y se aprueban sus bases reguladoras.

2.— Para este fin se cuenta con un crédito de pago para el año 2010 por importe de ochocientos treinta y un mil (831.000) euros con cargo a la aplicación presupuestaria 07.7311.33.75200.001, en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, aprobados por Ley 2/2009, de 23 de diciembre.

3.— Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de las ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución

Industria eta Energiako sailburuordearen Ebazpenak emango du zirkunstantzia horren berri.

Bigarrena.— Betekizunak.

1.— Eskatzaileek, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren agregakinen lurrazpiko ustiategiak ikertu eta garatzeko eta meategiak berritzeko proiektu eta jardunen finantziatorako laguntzak arautzeko eta horiek arautzeko oinarriak onartzeko Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, Agindu horren 4. artikuluan xedaturiko betekizunak bete beharko dituzte.

2.— Gainera, eskabide-orriak eta gainerako dokumentazio osagarria lurralde historiko bakoitzeko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Lurralde Ordezkaritzako bulegoetara bidali behar dituzte, bai zuzenean, bai urtarilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu duen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikutsita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

3.— Laguntzen eraginpeko jardunak gauzatzeko epea 2010eko abenduaren 31n amaituko da.

4.— Eskabideak aurkezteko, hilabete bateko epea izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian idazki hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Ebazpen hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 2a.

Industria eta Energiako sailburuordea,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.

de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Industria y Energía.

Segundo.— Requisitos.

1.— Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regulan las ayudas para la financiación de proyectos y actuaciones para la investigación y desarrollo de las explotaciones subterráneas de áridos e innovación minera y se aprueban sus bases reguladoras, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 4 de la Orden de referencia.

2.— Asimismo, deberán dirigir las solicitudes y demás documentación complementaria a las correspondientes Delegaciones Territoriales de Industria, Innovación, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.— El plazo máximo de ejecución de las actuaciones para las que se soliciten las ayudas finalizará el 31 de diciembre de 2010.

4.— El plazo de presentación de solicitudes es de un mes, comenzando al día siguiente de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.— Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 2010.

El Viceconsejero de Industria y Energía,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.